urrobi

Autobusetik jeitsi eta oinez noa plazaraino. Bizikleten aparkalekuan, mugikorrarekin QR kodeari argazkia egin eta prest da bizikleta. Motxila bizkarrean, bide gorritik noa.

Debekatuta dagoen arren, atsegin dut errepidean musika entzutea.

Ibai ertzeraino heldu naiz oharkabean. **Ibil bedi** taldearen kantua entzuten ari naiz. Atsegin ditut. "*Lotzen zaituen hori bilatu eta bidea ederra izatea*".

Bapatean, kantuari jarraika noala, bidean galdu naiz. Ez dakit errepidetik noan, erreka bazterretik, edo ibai zabal honetan murgildu ote naizen. Errekan gora noa oharkabean.

Udaberria, pagoak hostoak ematen hasi dira. "*Harri sendo bat da uretan diren bi hankek behar duten guztia*". Zabaldu ditut besoak, Urrobin bustita esnatu naiz.